

<b>Irakasgaiaren izena</b>	<b>Kodea</b>	<b>Ikasturtea</b>
Garapenaren Psikologia	151307	2024-2025
<b>Titulazioa</b>	<b>Maila</b>	<b>Seihilekoa</b>
Haur Hezkuntzako Gradua	1.	1
<b>Irakasgai mota</b>	<b>ECTS Kredituak</b>	<b>Hizkuntza</b>
Oinarrizko Formakuntza	6	Euskara
<b>Irakaslea(k)</b>		
Leire Garamendi Merino		

### Justifikazioa

Haurtzaroak berebiziko eragina du pertsonaren garapenean, eta bere konplexutasuna eta eragina ulertzeko, garapenaren psikologiako ikasgaiaren 0 eta 6 urte bitarteko haurren garapen biologiko, psikologiko, kognitibo eta sozialarekin erlazionatuta dauden ezagutza teoriko-praktikoak landuko dira haurtzaroa ezagutu, aztertu eta ulertzeko helburuz.

Prozesu horren oinarria ezartzeko gizakiaren garapena hainbat ikuspuntu teorikotatik landuko da. Haurra eta haurtzaroa ikasgaiaren ardatzak izango badira ere, gizakia izango da zenbaitetan hizpide, izan ere garapenaren psikologiak gizakiaren bizi-zikloa, hots, jaiotzetik heriotzara arte ematen diren aldaketak eta ezaugarri iraunkorrak ere, osotasunean ikertzen baititu.

Haurtzaroari buruzko ezagutza hauek lortzeko, ikasgaiaren zehar material teorikoak erabili eta lan praktikoak egingo dira. Era honetara, etorkizuneko irakasleek haurren ezaugarri psikoebolutiboak, gelaren antolakuntzan, kontuan izatea eta aplikatzea da ikasgai honen helburu nagusia. Helburu hau lortzeko, ikasgaiaren zehar, arlo teorikoan, landutako kontzeptualizazioa, esperientziazio aktiboan aplikatzeko aukera emango zaie ikasleei, aldi ebolutibo desberdinetan aztertutako ezaugarriek haurren garapenean nolako eragina daukaten behatu eta egiazta dezaten.

### Aurrebaldintzak

Ez daude.

## Gaitasunak

### Gaitasun orokorrak

- **GO 1: Pentsamendu Kritikoa:**

1. Menderatze maila: Norbere buruari inguruko errealitatearen gaineko galderak egitea eta errealitate horren inguruko eztabaidetan aktiboki parte hartzea, ematen diren iritzia aztertuz eta norbere eta besteen erabakien ondorioen gainean hausnartuz.

### Berriazko gaitasunak

BG 1: Ikuspegi teoriko desberdinen arabera, garapenaren psikologiak gizakiaren bizi zikloan eta ikaskuntza prozesuan duen garrantzia justifikatzea, jakitunek planteatutako oinarriko teoriak eta hauen arteko erlazioa barneraturik.

BG 2: Haur Hezkuntzan, berdintasun printzipioan oinarrituta, talde heterogeneoak antolatzean, haurren garapenean eragina duten faktore kognitibo eta psikosozialak zehaztasunez aplikatzea. Horretarako, diziplina desberdinek planteatutako bizi zikloan nabarmenak diren ezaugarriak ezagututa.

BG 3: 0-6 adin tartean ematen diren ezaugarri emozionalen aspektu orokorrak antzematea, eta haurren garapen osoan eta eguneroko esperientzietan izango duten eragina identifikatzea. Ondorioz, emozioen papera, eta heziketa emozionalaren garrantzia ikaskuntza prozesuan justifikatzea.



## Garapen Jasangarriko Helburuen eta Laudato si' Helburuen presentzia ikasgaiari



### 3. GIH Osasuna eta ongizatea

1. Ikasleak badaki zer diren osasuna, higiena eta ongizatea, eta kontzeptu horiei buruzko gogoeta kritikoa egin dezake, generoak osasunean eta ongizatean duen garrantziaren ulermena ere barne hartuta.



### 4. GIH Kalitatezko hezkuntza

1. Ikasleak ulertzen du hezkuntzak eta etengabeko ikaskuntzak (formala, ez-formala eta informala) guztioi eskaintzen dizkiguten aukeren garrantzia, garapen iraunkorrerako sustatzaile den neurrian nahiz pertsonen bizimodua hobetzeko eta GIHak betetzeko.

## Edukiak

1. Garapenaren psikologiaren ikuspegi teorikoa. Ikerketak eta teoriak.
  - Garapenaren psikologiako eredu teoriko nagusiak.
2. Jaio aurreko garapen ebolutiboa.
  - Pertsonaren sorkuntza prozesua
3. Haurtzaroko garapen ebolutiboa.
  - 0-6 urte bitarteko haurren garapen kognitiboa, emozionala eta psikosoziala.

## Ikas-irakaskuntza estrategiak

Ikasgaiaren estrategia desberdinen erabilpena eta denboraren banaketa:

-Esperientzia-testu inguraketa: Atal honetan, gizakiaren garapenari buruzko ikasleen aurreiritziak ezagutu eta azalaraziko dira. Lehenengo pausu honekin, gelan, izandako esperientziak eta ezagupenak elkarrekin konpartituko dira. Era berean, ikasleek gaiari buruz izandako jakintzak, motibazioak, igurikapenak...ezagutuko dira.

-Hausnarketarako behaketa: Norbere hausnarketaz eta talde hausnarketaz baliatuta, klasean emandako bibliografia eta materiala erabilita, gizakiaren bizi-zikloa osotasunean aztertuko da, honen gain eragina duten faktore kultural, familiar, sozial, emozionalak e.a....kontutan izanik.

-Kontzeptualizazioa: Atal honetan garapenaren psikologiari dagozkion ezaugarri, osagai, jakintza, berezitasunak etab. aztertuko dira, horretarako, baliabide ezberdinak erabiliko ditugu, hauen artean: irakurketa espezializatua, gaien azalpen teorikoak, material audiobisuala, ariketa praktikoak edota kapituluak irakurketa.

-Taldeko eta bakarkako jarduera praktikoak: Alde teorikoan ikasitako aplikatzeko, jarduera praktikoak egingo dira. Jarduera hauek taldeka zein bakarka egingo dira. Hauen artean, galdetegiak, kasu analisia, behaketak, role playing-ak, eta eztabaidak egingo dira.

-Ebaluaketa: Ebaluaketa froga objektiboen eta bakarkako zein taldeko ariketa praktikoaren bidez egingo da.

## Ebaluazioa

### Ohiko deialdia:

Gaitasun Orokorra: %10

Berriazko Gaitasunak: %90

-Klasean eta gelaz kanpo egindako banakako edota taldeko ariketa praktikoak eta lanak: %50 (GO barne)

-Froga objektiboa: %50 (%50 BG)

### Ez ohiko deialdia:

Gaitasun Orokorra: %10

Berriazko Gaitasunak: %90

-Ikasgaiaren zehar landutako atal teoriko eta praktikoa barneratzen duen proba.

**Oharra:** Ebaluatuak izateko entregatutako lan edo jarduera guztiek bete behar dituzte gutxienezko baldintza batzuk, bai arlo formalari dagokionez (aurkezpena, formatua, iturburuen aipuak eta erreferentziak e.b.), bai idatziko komunikazioari dagokionez (zuzentasuna, adierazpen eta erregistro egokiak). Baldintza minimo hauek bete ezean, jarduera ez da zuzenduko eta automatikoki ez ohiko deialdira pasatuko da.

### Adimen artifizialaren erabilera:

Ez dago baimenduta adimen artifizialeko tresnak (AA) edo horien bidez sortutako edukiak erabiltzea.

Ezin da lan akademikorik kopiatu, plagiatu edo sortu Adimen Artifizialeko tresna baten bidez. Horrelako iruzurrezko praktikak egitea falta astuntzat hartuko da, Ikasleen Araudiaren 75. artikularen arabera, (Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofiziala, 81. zk., 2023ko ekaina)

## Dokumentazioa

- Ausubel, D.P. (2002). *Adquisición y retención del conocimiento desde una perspectiva cognitiva*. Paidós.
- Aritzeta, A., Pizarro, M. eta Soroa, G. (2008). *Emozioak eta Heziketa*. Gipuzkoako Forun Aldundia.
- Berk, L.E. (2013). *Child Development*, 9. arg. Pearson.
- Craig, G. eta Baucum, D. (2001). *Desarrollo Psicológico*. 8. arg. Pearson Educación.
- Delgado, B. (Ed). (2013). *Psicología del desarrollo en la infancia y la adolescencia: Manual de prácticas y casos para docentes*. Publicaciones Universidad de Alicante.
- Granizo, L. (Koord.). (2024). *Psicología del desarrollo para docentes de Infantil y Primaria*. Centro de estudios financieros.
- Kail, R. eta Cavanaugh, J. (2010). *Human Development: A life-span view*. 6. arg. Cengage Learning.
- Oliva, A. (1997). La controversia entre herencia y ambiente. Aportaciones de la genética de la conducta. *Apuntes de psicología*, 51, 21-37.
- Palacios, J. (1987). Las ideas de los padres sobre sus hijos en la investigación evolutiva. *Infancia y Aprendizaje*, (39-40), 9-111.
- Palacios, J., Marchesi, A. eta Carretero, M. (1986). *Psicología evolutiva*. Alianza Universidad.
- Palacios, J., Marchesi, A. eta Coll, C. (2007). *Desarrollo psicológico y educación. 1. Psicología Evolutiva*. Alianza editorial.
- Papalia, D., Wendkos-Olds, W.S. eta Feldam, D.R. (2005). *Desarrollo Humano*. 9. arg. Mc Graw Hill.
- Papalia, D., Wendkos-Olds eta Duskin, R. (2001). *Desarrollo Humano*. 8. arg. Mc Graw Hill.
- Piaget, J. (1975). *Psicología del niño*. 6. arg. Ediciones Morata.
- Piaget, J. (1981). *La representación del mundo en el niño*. 5. arg. Ediciones Morata.
- Pozo, J.I, eta Carretero, M. (1987). Del pensamiento formal a las concepciones espontáneas: ¿Qué cambia en la enseñanza de la ciencia? *Infancia y Aprendizaje*, 38, 35-52.
- Rodrigo, M.J. eta Palacios, J. (2000). *Familia y Desarrollo Humano*. Alianza Editorial.
- Shaffer, D. eta Kipp, K. (2010). *Developmental Psychology: Childhood and Adolescence*. 8. arg. Cengage Learning.